

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### OLABARRIKO ADMINISTRAZIO BATZARRA

#### **Behin betiko onestea Olabarriko Kontzejuaren jabetzako mendi publikoetako onddo, landare, lore eta basafruituen aprobetxamendua arautzen duen ordenantza**

Kontzeju honek, 2021eko otsailaren 5eko bilkuran, hasierako onespena eman zion kontzeju honen jabetzako mendi publikoetako onddo, landare, lore eta basafruituen aprobetxamendua arautzen duen ordenantzari, eta alegaziorik aurkeztu ez zenez, 2021eko apirilaren 23an egindako kontzejuan erabaki zen behin betiko onestea ordenantza hori.

Olabarri, 2021eko ekainaren 4a

*Erregidore lehendakaria*

*JUAN BAUTISTA RUIZ DE LOIZAGA*

#### **Olabarriko Kontzejuaren jabetzako mendi publikoetako onddo, landare, lore eta basafruituen aprobetxamendua arautzen duen ordenantza**

Gaurko gizarteak naturari buruz duen ikuspegia aldatzen ari da pixkanaka, gero eta indartsuago sumatzen baita landa ingurunerako zaletasuna atsedean hartzeko, aisiarako zein harekin bat egiteko.

Urteko sasoi batzuetan gure basoek jasaten duten gehiegizko bilketa ikusirik, beharrezkoa dirudi oraingoa ez bezalako kudeaketa mota bat aplikatzea, tokian tokiko ohitura zaharretan oinarritua.

Espekulazioak, bideek, basoko barrutiek eta inguruneak, oro har, zuzeneko eragina dute, adibidez, mendi publikoen jabeen bizi kalitatean. Gero eta garbiago ageri da jarduera mikologikoaren eta landa garapenaren arteko lotura, jarduera horrek eragin handia baitu paisaiaren kontserbazioan eta herri askotako gizartearen eta ekonomiaren egiturari.

Mikologiari lotutako jarduerak ekonomiaren eta gizartearen garapenerako lagungarriak izan daitezke, baliabideen erabilera arduratsua sustatu behar da eta elkarrekin jarduerak babestu behar dira, aldi berean tokian tokiko kultura nortasunari eutsiz.

Herritarren parte hartzeaz sortzen ari den eta kontzeju honek ontzat ematen duen turismo proiektuan, asmoa da gure entitateei gai batzuetan bultzatzea, hala nola, ostalaritzan, ondarearen zaintzan, kulturean, kirolean eta, zergatik ez, turismo mikologikoarekin lotutako baliabideen zaintzan.

Garapenerako edozein proiektuan funtsezko helburuetako bat da proiektuaren xede diren eta emaitzen onuradun izan daitezkeen biztanleak inplikatzeko, haien eskubideak zainduta, euren jabetzaren sortzen diren produktuen jabeak diren aldetik.

Printzipio horien garapen gisa onetsi zen urriaren 14ko 89/2008 Foru Dekretua. Bada, dekretu horretan baldintza orokorrak ezartzen dira perretxikoak, basafruituak, landareak eta loreak biltzeko. Helburu nagusia da jarduera horrek natura ingurunean sortzen dituen ondorio txarrak mugatzea.

Bestalde, urriaren 14ko 89/2008 Foru Dekretuaren 4. artikulua dioenez, mendien jabe diren entitateek udal ordenantzen bidez arautu ahal izango dute perretxikoen, basafruituen, landareen eta loreen bilketa, euren udalerrien berezitasunak kontuan hartuz eta, betiere, dekretu horretan ezarritako irizpideei jarraituz.

Hala, bada, perretxikoen, fruituen eta beste produktu batzuen bilketak azken urteotan izan duen hazkunde neurrigabearen ondorioz, eta kontuan izanik lurren jabea perretxikoen jabea ere badela (88/2009 Foru Dekretuaren 2.1 artikulua), artikulua horretan oinarrituta, kontzeju honek ahalmena du ordenantza hau emateko, perretxikoen aprobetxamendua arautuko duena, modu egoki eta antolatuan egin dadin, ekosistemaren oreka hondatu edo espezieen iraupena arriskuan jarri gabe. Hori guztia, eskubide tradizionaleri zein bizilagunei dagozkienei kalterik egin gabe.

Eskubide horiek izan dira ordenantza honen proposamenaren eragile.

## I. titulua - Zati orokorra

### 1. artikulua. Oinarria

Kontzeju honek bere jabetzako mendi publikoetako onddo, landare, lore eta basafruituen aprobetxamendua arautzen du. Horretarako, hauek guztiak hartu ditu kontuan: Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeak 106. artikuluan emandako ahalmenak; Mendien martxoaren 26ko 11/2007 Foru Arauak 4. eta 5. artikuluetan bere mendiak administratzeko ematen dizkion eskumen eta eginkizunak; aipatutako foru arauaren 51. eta 52. artikuluetan onddo, landare, lore eta basafruituen aprobetxamenduaz dauden arauak, bai eta urriaren 14ko Diputatuen Kontseiluak onddo, landare, lore eta basafruituen aprobetxamendua arautzeko emandako 89/2008 Foru Dekretua ere. Kontzeju honen jabetzako mendi publiko guztien katastro erreferentzien zerrenda jaso da I. eranskinean, ondo identifikatu ahal izan daitezten.

Halaber, bat etorritz Arabako Zergen otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorrarekin eta aplikatu beharreko gainerako arauekin, onura publikoko mendi horietako esparruko onddo, landare, lore eta basafruituen aprobetxamenduaren tasa ezarri eta arautzen da.

### 2. artikulua. Xedea eta aplikazio eremua

1. Ordenantza honen xedea da kontzeju honen jabetzako mendi publikoetako onddo, basafruitu, landare eta loreen aprobetxamendua arautzea (mendi horiek Iruña-Okako udalerrian daude, eta haien lurren zerrenda jaso da I. eranskinean), ezertan eragotzi gabe indarreko legeriaren arabera beste administrazio publiko batzuek izan ditzaketen eskumenak. Hartara, aprobetxamenduak baliabide mikologikoetan eta perretxikoen habitatetan sortzen dituen ondorio kaltegarriak ahalik gehiena murriztu nahi dira.

I. eranskineko zerrendan, zeinean mendi publikoetako katastro lurzatiak zehazten baitira, kontzeju honen jabetzakoak diren onura publikoko mendi hauek daude, Arabako Foru Aldundiaren mendien katalogoan sartuak:

OLABARRI

OPko 571/2 mendia: "MONTE ARRIBA"

OPko 566/2 mendia: "BAJO SOPEÑA"

2. Tuber generoko boilurren bilketak bere arau berezia du, hain zuzen azaroaren 19ko Diputatuen Kontseiluaren 891/1991 Foru Dekretua, Arabako mendietan boilurguneen aprobetxamendurako arautegia onesten duena. Beraz, ez zaizkio aplikatuko ordenantza honetako xedapenak.

3. Ordenantza honetan xedatutakoa onura publikoko mendi guztietan aplikatuko da. Mendi horiek behar bezala seinalatuta egon beharko dute, urriaren 14ko 89/2008 Foru Dekretuak ezarritakoaren arabera.

### 3. artikulua. Definizioak

Ordenantza honi eta beraren ondoriozko arau eta erabakiei dagokienez, definizio hauek erabiliko ditugu:

- a) Perretxiko: onddo baten ugalketa atala edo gorputz fruitu emailea, esporak sortu eta sakabanatzen dituena.
- b) Boilurra: Tuber generoko onddoek garatzen duten koskor mamitsua, tuberkulu formakoa. Ordenantza honen ondorioetarako perretxikoak bezalakoak dira.
- c) Baimena: jabe den administrazio publikoaren egintza, bilketarako eskubidea erabiltzea ahalbidetzen duena. Baimena ematea interes orokorraren mende egongo da; zehazkiago, basoko ekosistemaren orekaren eta espezieen iraupenaren mende.
- d) Bilketa egutegia: perretxikotan ibil daitekeen egunen eta, eskusioz, ezin ibil daitekeen egunen zerrenda.
- e) Eskutada: heldu batek esku batean har dezakeen gauza sorta edo mordotxo.
- f) Aprobetxamendua: basafruituak, landareak, loreak eta perretxikoak eskuz biltzea.

## II. titulua - Aprobetxamenduen baldintzak

### 4. artikulua. Onddo, landare, lore eta basafruituen bilketa mendi publikoetan

1. Ordenantza honen xede diren mendi publikoetako onddo, landare, lore eta basafruituen aprobetxamenduetan beti errespetatuko da urriaren 14ko Diputatuen Kontseiluaren 89/2008 Foru Dekretua, eta, produktu horiek natura baliabide berriztagarriak direnez, haien zentzuzko erabilera eta kontserbazio egokia uztartuko dira, ekosistemaren oreka eta espezieen iraupena bermatzeko.

2. Mendiak jostetarako erabiltzeko eskubidea aitortzen da arau orokor gisa, baina horrek inola ere ez du aprobetxamendurako biderik emango ordenantza honetan ezarritako mugetatik kanpora, eta ez du inolako eskubiderik sortuko.

3. Onddo, landare, lore eta basafruituen aprobetxamendua beti lotu behar zaio ordenantza honetan ezarritakoari. Beraz, aprobetxamendu hori mendiaren aprobetxamendutzat joko da, horrela ezartzen baitute martxoaren 26ko 11/2007 Foru Arauak 36. artikuluan eta Arabako Lurralde Historikoan onddo, landare, lore eta basafruituen bilketa arautzen duen urriaren 14ko 89/2008 Foru Dekretuak 3.5 artikuluan.

4. Ordenantza honetan araututako aprobetxamendu guztiak Olabarriko Kontzejuaren urteko aprobetxamendu planean sartuko dira, beren baldintza ekonomikoekin eta ahalmenaren inguruko baldintzekin, Mendiei buruzko 11/2007 Foru Arauaren 36. artikuluan xedatutakoaren arabera, eta haietatik ateratzen den diruaren ehuneko 15, gutxienez, foru arau horrek arautzen duen hobekuntza funtsera bideratuko da.

5. Apaingarritarako, sukalderako edo sendatzeko erabiltzen diren belar eta loreen aprobetxamendua librea izango da, baldin eta gure mendietako espezie arruntak badira eta babestuta edo katalogatuta ez badaude. Gehienez ere, eskutada bat hartu ahalko da pertsona eta egun bakoitzeko sortetan batzen diren espezieen kasuan, edo, ontziren batean batzen diren landare edo loreen kasuan, 200 gramo berdean, pertsona eta egun bakoitzeko.

### 5. artikulua. Aprobetxamenduak naturgune babestuetan

Onddoen, landareen, loreen eta basafruituen aprobetxamendua, ordenantza honetan xedatutakoaz gain, natura baliabideak antolatuzko planetan eta erabilera eta kudeaketa zuzentzeko planetan arlo horri buruz jasotako preskripzio espezifikoek arautuko dute.

### III. titulua - Baimenak

#### 6. artikulua. Baimenak

1. Onddo, landare, lore eta basafruituak bildu ahal izateko, Olabarriko Administrazio Batzarren baimena eduki beharko da. Baimenak udal bulegoetan emango dira, udalerrira egunero bilketa egiteko asmotan etortzen diren pertsonen kopurua kontrolatzeko. Hori guztia, kontzeju honek beste erakunde batzuekin sinatuko duen lankidetzaz hitzarmenari jarraiki, Iruña Okako udalerriko mendi publikoak barruti bakar batean sar daitezten. Eskumenen delegazio horretan, aprobetxamendurako baimenak emateaz eta tasak ordenantzen arabera kobratzeaz gainera, esparruaren kudeaketaren beste alderdi batzuk ere sartzen dira: ordenantzeta ezarritako betebeharrak zaindu eta kontrolatzeko zerbitzuak kontratatzea, ordenantzeta aurreikusita dauden edo esparrua behar bezala kudeatzeko beharrezkoak diren lanak, obrak eta zerbitzuak egitea –seinaleztatze lanak, adibidez, edo kontzejuen baliabideak kontserbatu eta babesteko kautelazko neurriak–, eta, hala behar denean, zehapen espedienteak elkarlanean izapidetzea, aprobetxamendua arautzen duten ordenantzei jarraituz.

Baimenaren titularrari aprobetxamendu eremuaren funtzionamendu arauak emango zaizkio. Arauok bete ezean, baimena indarrrik gabe geratuko da.

2. Ordenantza honetan aipatzen diren baimen guztiak izendunak, pertsonalak eta bestere-nezinak izango dira.

3. Ordenantza honetan araututako espezietako aleren bat aldean daraman pertsona orok horretarako baimena eduki beharko du.

Bilketan aritu bitartean baimena aldean eraman beharko da, subjektua identifikatzeko balio duen agiriren batekin batera, eta hura erakutsi beharko da agintari batek horrela eskatuz gero. Baimena erakusteko eska dezakeen agintari hori mendi publikoaren titularra den kontzejuko burua izan daiteke edo Arabako Foru Aldundiko Mendi Zerbitzuko basozainak izan daitezke, euren eginkizunetan ari direla, mendiei buruzko indarreko araudian aurreikusita baitago Foru Aldundiak eta toki erakundeek elkarlanean jardutea toki erakundeek onetsitako ordenantzak beteko direla bermatzeko kontrol lanetan. Halaber, onddo, landare, lore eta basafruituen esparrurako zaintzaileak kontratatzen badira, haiei ere baimena erakutsi beharko zaie.

4. Baimenak emango dira eskatzen diren hurrenkera berean, eta behar izanez gero, kopurua mugatu ahal izango da.

5. Baimena eskuratzeko, tasa ordaindu beharko da, ordenantza honetan ezarritako araei jarraituz.

6. Esparruaren kudeatzaileak baimenen truke biltzen duen dirua berrinbertitu egingo da esparruko mendi publikoen kontserbazioan eta garbiketan, ordenantza honetan xedatutakoaren kontrolean eta zaintzan, eta toki erakunde titularrek eduki behar duten hobekuntzarako funtsaren horniduran. Izan ere, indarrean dagoen foru arauak ezarritakoaren arabera, toki erakunde horiek hobekuntzarako funts bat eratu behar dute, onura publikoko mendietako aprobetxamendu guztien zenbatekoaren ehuneko 15arekin.

### IV. titulua - Onuradunak

#### 7. artikulua. Aprobetxamenduaren baldintzak

1. Ordenantza honetan araututako aprobetxamendurako eskubidea izango dute:

1.1. Olabarrin bizi diren pertsonak, udal erroldan izena, gutxienez, duela urtebete eman bazuten.

1.2. Azterketa mikologikoak egiten dituzten elkarteak eta erakundeak, irabazteko xederik ez badute.

2. Gainera, eguneko, asteko edo denboraldiko baimenak eman ahal izango dira bizilagunak ez direnentzat edo duela urtebete baino gutxiagotik bizilagun direnentzat. Baimen horien kopurua mugatua izango da, eta Olabarriko Administrazio Batzarrak denboraldi bakoitzaren hasieran erabakiko du, horretarako aurreikuspenak kontuan hartuta.

## V. titulua - Kuotak

### 8. artikulua

1. Honako kuota hauek ordaindu beharko dira onddo, landare, lore eta basafruituen aprobetxamenduetatik, hau da, ordenantza honetan xedatutakoaren arabera, onddo, landare, lore eta basafruituak biltzeagatik, kontsumitzeko nahiz merkaturatzeko, ordenantza honen xede diren mendi publikoetan:

a). Zazpigarren artikuluko 1.1 puntuan sartutako pertsonak Olabarriko Administrazio Batzarrak emango dien denboraldiko baimen bat eskuratu beharko dute udal bulegoetan edo horretarako izendatzen diren entitate laguntzaileetan, eta denboraldiko hamar euro ordaindu beharko dituzte.

Denboraldiko baimen horrek ordenantza honen xede diren mendi publikoetarako balioko du, bai eta hitzarmen eta ordenantza egokien bidez sortzekoa den esparru bakarreko mendi guztietarako ere.

b). 1.2 puntuan adierazitako pertsonak baimen berezia eskuratu beharko dute, Olabarriko Administrazio Batzarrak berrikusia. Onddo, landare, lore eta basafruituen aprobetxamendua arautzen duen urriaren 14ko 89/2008 Foru Dekretuak ezartzen duenari lotuko zaio baimen berezi hori. Beraz, zientzia helburuetarako, identifikaziorako edo bildumatzeko onddoen bilketa librean, hiru unitate oso batu ahalko dira gehienez ere.

c). Zazpigarren artikuluko 2. puntuan sartutako pertsonak Olabarriko Administrazio Batzarrak edo horretarako izendatzen diren entitate laguntzaileek emandako eguneko baimen bat eskuratu beharko dute. Horren prezioa pertsona eta egun bakoitzeko hamar euro izango da. Asteko abonamenduak ere emango dira, zazpi egun naturalerako, hogeituro euro pertsona bakoitzeko, eta urteko abonamenduak, denboraldi osorako, laurogeituro euro pertsona bakoitzeko.

2. Aprobetxamendu kuota, dagozkion baimenak eskatzen eta eskuratzen direnean sortuko da.

3. Aprobetxamendu kuota ordaindu behar duten subjektu pasiboak izango dira, onddo, landare, lore eta basafruituen aprobetxamendurako baimenak eskatzen eta eskuratzen dituzten pertsonak ez ezik, baita baimenik eskatu gabe aprobetxamendu hori egiten duten pertsonak ere.

Azken kasu horretan, zehapen espedientea izapidetuko da, aprobetxamendua baimenik gabe egin dela egiaztatuko da, eta zehapena ezarriko da. Zehapen hori administrazio bidean irmo bihurtzen denean, organo eskudunak ezar ditzakeen isuna eta zehapen osagarriak gorabehera, Olabarriko Administrazio Batzarrak ordenantza honen arabera aprobetxamenduetatik ordaindu behar zen kanona likidatuko du.

## VI. titulua - Babes neurriak

### 9. artikulua. Bilketarako egun baliiodunak eta ordutegia

1. Egunero bildu ahal izango dira perretxikoak, eguna argitzen duenetik eguzkia sartu arte. Hala ere, Olabarriko Kontzejuak bilketa debekatu ahal izango du ehiza jarduera bateraezinak egiten diren egun eta orduetan edo bilketarako eguraldi txarra dagoenean. Arabako Foru Aldundiak debekua ezartzen duen egunetan ere ezin izango da perretxikotan ibili.

2. Aurreko hori gorabehera, Olabarriko Administrazio Batzarrak bilketarako egutegia onartu ahal izango du urtero, baliabideak babesteko xedez, eta bertan finkatuko dira perretxikoak biltzeko egun baliiodunak. Espezieen edo eremuen araberrako aldaketak ezarri ahal izango dira.

#### 10. artikulua. Jokabide debekatuak

1. Arau orokor gisa, perretxikoak biltzeko fasean nahiz lurretik batzerakoan, debekaturik egongo da lurra iraultzea, azaleko landare lurra eta gaineko estalkia mugituz, eskuz, hankaz edo orbela eta lurrustela altxa ditzakeen tresnaren bat erabiliz. Onddo hipogeoak (lurpean hazten direnak) biltzen direnean, araudi berezirik ezean, lurra lehen zegoen bezala utzi beharko da, hau da, onddoak ateratzeko egindako zuloak berriro bete beharko dira haietatik ateratako lurrearekin.

2. Debekaturik dago lau zentimetro baino gutxiagoko diametroko txapela duten perretxikoak biltzea, salbu *Cantarelus*, *cinereus*, *lutescens* eta *tubiformis* espezieetakoak (hurrenez hurren saltsa-perretxiko horia, zizahoria eta horiluna) eta *Marasmius oreades* edo marasmio jangarria; horiek bi zentimetroko diametroko txapela izan behar dute gutxienez.

3. Aprobetxamendu eremuan Olabarriko Administrazio Batzarrak eta Arabako Foru Aldundiak ezar litzaketen seinaleak eta mugak errespetatu beharko dira.

#### 11. artikulua. Tresnen erabilera

1. Ez da onartuko perretxikozaleek eskuare, kako, igitai, aitzur, jorrai, aliketa edo antzeko tresnarik eramatea bilaketan ari direla, nahiz eta ez erabili; ez du axola zer neurritakoak diren.

2. Perretxikozaleek aiztoa, labana edo antzeko tresnaren bat baino ezin izango dute erabili perretxikoak biltzeko.

3. Araudi berezietan sartuta ez dauden onddo hipogeoak biltzeko baino ezingo da erabili boilur aihotza edo antzeko tresnaren bat.

4. Zuhaixka formako landareak biltzeko, inautseko artaziak erabili ahal izango dira, edo aldaxkak mozteko labana.

#### 12. artikulua. Bilketarako arauak eta biltzeko moduak

1. Helduen ohiko neurriak dituzten perretxikoak hartuko dira, betiere ordenantza honen 10.2 artikuluan ezarritako gutxieneko neurriak dituztenak. Ale galduak, apurtuak edo hondatuak eta bildu ezin direnak dauden lekuan utziko dira, suntsitu gabe.

2. Identifikatzeko zalantzak daudenean izan ezik, perretxikoa bere hanka osoarekin hartuko da, eta baztertuak izaten direnak beren lekuan jarriko dira berriro, orriak (edo poroak) behera begira dituztela. Landare, fruitu eta loreak identifikatu egingo dira hartu aurretik, eta behar-beharrezkoa den zatia besterik ez da hondatuko.

3. Betiere, mizelioa bere horretan utzita hartuko dira perretxikoak. Oinaldetik moztu edo osorik atera ahal izango dira, espeziearen arabera (*Ianperna*, *onddoa*, *galanperna* etab.). Puntu hau artikulua honetako 2. puntuarekin kontraesanean dago, baina zientifikoki egiaztatuta dago zenbait espezieetako perretxikoak, esate baterako *Boletus* generokoak, osorik ateratzeak ez diola mizelioari kalterik egiten, baldin eta, onddoa atera ondoren, lurreko zuloa betetzen bada.

4. Esporei sakabanatzen laguntzeko, perretxikoak zumez, lastoz, kanaberaz edo antzeko materialez egindako saskietan eramango dira, horien egiturak esporei kanpora zabaltzen uzten baitie.

5. Sukaldaritzarako, apaingarritarako edo medikuntzarako balio ez duten espezieak biltzeko 88/2009 Foru Dekretuak 2.3 eta 2.4 artikuluetan xedatzen duena aplikatuko da.

#### 13. artikulua. Seinaleztapena

1. Erabilztaileek eremu geografiko mugatu edo debekatuak ezagutu ditzaten, bai mendi publikoetan eta bai lursail pribatuetan, metalezko kartelak jarri beharko dira, hondo zuria- ren gainean letra beltzak dituztenak, gutxienez 42 x 29,5 zentimetrokoak, eta kasuan kasuko idazkuna dutenak: 13.2 artikuluan ezarritakoa, erakundearen debekua dagoen kasuetan, edo 13.3 artikuluko, jabe partikularren edo erakunde arautzailearen debekua dagoenean. Gainera,

mendi edo finkaren izena agertuko da. Kartel horiek erraz ikusteko moduko lekuetan ipini behar dira finkara doazen bideetan eta finkako mugetan, 1,5 metroko zutoinen gainean, eta Euskal Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialetan inprimatuta egongo dira.

2. Olabarriko Administrazio Batzarrak bilketarako debekuak ezarri ahal izango ditu aldi baterako. Horretarako, "Debekuta dago perretxiko bilketa" dioten kartelak jarriko ditu. Betiere, ordenantza honetan ezarritako seinalatze sistema errespetatu beharko da.

3. Lurraren jabeek beretzat bakarrik gorde dezakete perretxikoak biltzea, hori adierazten duten kartelak jarri. Berdin egin ahal izango dute horretarako ahalmena ematen duten eskubide errealeen titularrek.

4. Kartelek "Lur pribatuak. Perretxikoak biltzea erreserbatuta" idazkuna edukiko dute, eta 13.1 artikuluan azaltzen den bezala kokatuko dira.

Oro har, udalerriko mugetan, eta batez ere sarrerako errepide, basoko pista edo bideetan, ordenantza honen xede den perretxiko bilketa arautuaz ohartaraziko da, "Perretxikoen aprobetxamendua. Debekatuta dago baimenik gabeko bilketa" dioten seinaleak jarri, aurreko paragrafoan adierazitako moduan.

5. Itxiturak, hesiak eta seinaleak jartzea eta konpontzea, taketak aldatzea, behar denean seinale gehiago jartzea eta seinaleak berritzea esparruaren kudeatzailearen kontura izango dira.

Dena dela, erabiltzaileek esparruko hesi eta seinaleak zaindu eta errespetatu beharko dituzte. Dagokion zehapen-espedita izapidetzen bada, betebeharrak ez betetzeagatik, arau-hauleari, dagokion zehapen ekonomikoaz gain, konpontzeko betebeharrak ezarri ahal izango zaio, bai ingurunea lehengoratzeko egin beharreko lanak bere kontura eginez, bai eragindako kaltea kalkulatu den kalte-galerengatik dagokion kalte-ordaina ordainduz, mendien arloan indarrean dagoen araudiaren arabera.

## VII. titulua - Mugak

### 14. artikulua. Mugak, ibilgailuen zirkulazioa eta debekuak, oro har

1. Mugatutako eremuaren barruan, aparkaleku gisa berariaz seinalatutako tokietan bakarrik aparkatu ahal izango dira ibilgailuak. Eta, edonola ere, errespetatu egin beharko dira martxoaren 9ko Diputatuen Kontseiluaren 10/2010 Dekretua, arautzen duena ibilgailu motordunen zirkulazioa onura eta jabari publikoko mendietan. Zazpigarren artikuluko 1.1 puntuko pertsonak ibilgailuak non aparkatu ditzaketan Olabarriko Administrazio Batzarrak adieraziko du, aurrez Arabako Foru Aldundiko Parke Naturalen Zerbitzuarekin eta Mendi Zerbitzuarekin ados jarrita.

2. Egunean gehienez bi kilogramo onddo eta basafruitu bildu ahal izango dira pertsonako, eta 200 gramo landare eta lore, ontzian, edo eskutada bat, ontzirik gabe. Muga horretaz gainera, II. eranskinean espezie bakoitzerako ezarritako gehieneko muga errespetatu beharko da. Muga horietaz gainera, ordenantzaren eranskinean espezie bakoitzerako ezarritako gehieneko muga errespetatu beharko da.

Irabazteko xederik ez eta perretxikoak aztertzea helburu duten elkarte eta erakundeek baimen berezia eskatu beharko dute perretxiko espezieak aztertu edo biltzeko, eta baimen horren bidez gehienez 3 ale oso bildu ahal izango dituzte. Dena dela, perretxiko mota bakoitzetik gehienez bil daitekeen pisua araututa dago, eta aprobetxamendupeko espezieen taulan finkatuta.

3. Olabarriko Administrazio Batzarrak aprobetxamenduaren eremuan ezartzen dituen mugak, itxiturak eta seinaleak errespetatuko dira. Horrelakoetan, fisikoki eragotzi behar da debekatutako sarrera, eta neurri horri buruz behar den publikitate egingo da.

4. Debekatuta dago hondakinak botatzea edo objektuak uztea baimendutako lekuetatik kanpo, hau da, herriguneko zabor edukiontzietatik kanpo. Halaber, debekaturik dago hondakinak erretzea.

5. Debekatuta dago jabari publiko hidraulikoa kutsatu edo andeatu dezaketen likidoak edo solidoak botatzea.

6. Debekatuta daude zaratak, argi distirak eta abereak zein basoko animaliak asalatu ditzaketen bestelako energia igorpenak.

#### **15. artikulua. Kautelazko neurriak**

1. Aurreko artikuluan xedatutakoa gorabehera, Olabarriko Administrazio Batzarrak eskuordetutako ahalmenak erabiliz, baliabideak zaindu eta babesteko behar diren kautelazko neurriak ezarri ahal izango ditu erabaki arrazoituen bidez.

2. Jabe den erakundeak beretzat gordetzen du aprobetxamendupeko espezieen zerrenda berrikusteko eta egiteko eskubidea, beharrezko jotzen duenean.

3. Kontuan hartu beharko da perretxiko espezie iberiarren zerrenda gorria; Olabarriko Administrazio Batzarra bere lurraldean arriskuan dauden espezieen zerrenda egin beharko du, kontserbaziorako arau bereziak ezarri ahal izateko.

### **VIII. titulua - Zehapen araubidea**

#### **16. artikulua. Zehapen araubidea**

1. Ordenantza honetan ezarritako arauak hausteagatik administrazio zehapena ezarriko da; horretaz gainera, arau hausleari kendu egingo zaizkio bildutako produktuak.

Baimenik gabe aprobetxamendua egiteagatik zehapena jasotzen duenari ez zaio berriro baimenik emango bi urte pasatu arte.

2. Ordenantza honen aurka egiten diren arau hausteei ordenantzaren bertan xedatutakoa aplikatuko zaie, eta martxoaren 26ko 11/2007 Foru Arauak, mendienak, VII. tituluaren ezarritako zehapen araubidea ere aplikatuko zaie. Arabako Foru Aldundia izango da zehapen espedienteak izapidetzeko eta ebazteko eskumena duen erakundea.

#### **17. artikulua. Aplikatu beharreko araubidea**

1. Mendi Zerbitzuko basozainek, Foru Aldundiaren eta toki erakundeen arteko lankidetzaren esparruan, toki erakundeek onartutako ordenantzak beteko direla bermatzeko seinalizazio eta kontrol eginkizunak dituzte. Eginkizun horietan ari direnean basozainek idazten dituzten ikuskapen eta salaketa aktak, agiri publiko gisa, eurretan jasotako egitateak frogatzeko balioa izango dute, basozainak agintaritzaren agenteak baitira.

2. Aktak Arabako Foru Aldundiari igorriko dizkio kontzejuko presidenteak, eta mendien foru araudian tipifikatuta egon daitekeen eta ordenantza betetzen ez duen ekintza edo ez-egite baten berri emango du, egiaztatutako gertakarien bidez. Akta horiek beraiek edo onddo, landare, lore eta basafruituen barrutia zaintzeko kontratatzen diren zainzaileek sinatuko dituzte. Horrez gain, oinarri gisa balioko diote foru organo eskudunari, dagokion zehapen espedientearen has-teko eskaera arrazoitu gisa, eta organo horrek interesduntzat hartuko du bidaltzailea dagokion espedientearen.

3. Basa eta itsas fauna eta landaredian arriskuan dauden espezieen Euskadiko zerrendan katalogatuta dauden landareak biltzen edo hondatzen badira, Euskal Autonomia Erkidegoko natura kontserbatzeko legearen testu bateratua onesten duen apirilaren 15eko 1/2004 Legegintzako Dekretuak xedatutakoa bete beharko da.

#### **Xedapen gehigarriak**

Lehenengoa. Ordenantza honen bitartez, mikologia jarduera arautzeaz gainera, erreferentzia eskaini nahi da esparrua beste toki erakunde batzuetara hedatzen denerako, batez ere Iruña-Okako udalerriko mendi publikoen jabe diren kontzejuetara, euren borondatez hala erabakitzen badute, arauz, eta Olabarriko kontzejura, Iruña-Okako udalerraren barruan bere jabetzakoak dituen mendi publikoei dagokienez, eta, hala erabakitzen bada, beste kontzeju eta udalerrri batzuetara.



Bigarrena. Aurreko puntuan ezarritakoarekin bat etorriz, borondatez adostu da, aurretiaz honen antzeko ordenantza bat onartuta bere mendietarako, hitzarmena egitea, onura publikoko mendietako fruitu, perretxiko, landare eta loreen aprobetxamendurako esparru bakar bateko jarduera arautzeko. Organo kudeatzailea sortu da esparruko jarduera kontrola dezan, eta euren borondatez batu zaizkion erakunde guztiek izango dute ordezkari organo horretan.

Dena den, mendien jabe diren entitateek ahalmena gordeko dute nahi dutenean esparru bakarrera batzeko edo handik irteteko.

Hirugarrena. Aurreko kasuetan, ordenantzak bere xede diren mendi publikoez egiten dituen aipamenak kasuan kasuko toki erakundearen mendiei dagozkiela ulertuko da.

### Aprobetxamendupeko espezieen zerrendak

ZIENTIFIKOA	IZENA		EGUNEKO GEHIENEN KOPURUA
	EUSKARAZ	GAZTELANIAZ	
<i>Amanita caesarea</i>	Gorringo	Cesárea	2Kg.
<i>Boletus Aéreus</i>	Onddo beltz	HongoNegro	2Kg.
<i>Boletus Aestivalis</i>	Onddo zuri	BoletoReticulado	2Kg.
<i>Boletus Edulis</i>	Udazkeneko onddo zuri	HongoCalabaza	2Kg.
<i>Boletus Pinophilus</i>	Kaskabeltz	BoletodePino	2Kg.
<i>Calocibe Gambosa</i>	Udaberiko zizazuri	Seta de Orduña	2Kg.
<i>Cantarellus Cibarius</i>	Saltsa-perretxiko	Rebozuelo	2Kg.
<i>Cantarellus Cinereus</i>	Saltsa-perretxiko aranusain	Trompeta negra	1Kg.
<i>Cantarellus Lutescens</i>	Saltsa-perretxiko hori	Trompeta amarilla	2Kg.
<i>Cantarellus Tubaeformis</i>	Saltsa-perretxiko horilun	Rebozueloatrompetado	1Kg.
<i>Clitopilus Prunulus</i>	Errotaria	Marinera	1Kg.
<i>Clitocybe Geotropa</i>	San Martin ziza	Platera	2Kg.
<i>Craterellus Cornucopioides</i>	Salsa-perretxiko beltz	Trompeta de los muertos	1Kg.
<i>Hydnum Repandum</i>	Tripaki argi	Lengua de vaca	2Kg.
<i>Lactarius Deliciosus</i>	Esnegorri	Niscallo	2Kg.
<i>Lactarius Sanguifluus</i>	Esneardotsu	Lactario con sangre	2Kg.
<i>Lepista Nuda</i>	Ziza hankaurdin	Pie azul	2Kg.
<i>Lepista Personata</i>	Ziza hankamore	Pie violeta	1Kg.
<i>Marasmius Oreades</i>	Marasmio jangorri	Senderuela	1Kg.
<i>Russula Cyanoxantha</i>	Urretxa	Carbonera	2Kg.
<i>Russula Vesca</i>	Gibelarrosa goiztiar	Rusula comestible	1Kg.
<i>Russula Virescens</i>	Gibelurdina	Seta de cura	2Kg.
<i>Tricholoma Terreun</i>	Ziza arre	Negrilla	1Kg.
<i>Tricholoma Portentosun</i>	Zizailun-hankahorixka	Capuchina	1Kg.

### Espezie babestuen zerrenda gorria

1. Zerrenda honetan jasotako espezieak ezin dira bildu eta naturaren kontserbazioaren legegaren babespean daude.

*Albatrellus pes-caprae* (Pers.: Fr.) Pouzar *Amanita singeri* Bas.

*Amanita virosa* (Fr.) Bertill. *Amanita vittadinii* (Moretti) Vitt.

*Aureoboletus gentilis* (Quél.) Pouzar *Beenakia fricta* Maas Geest.

*Boletopsis grisea* (Peck) Bondartsev & Singer *Boletus fechtneri* Velen. *Boletus pulverulentus* Opat.

*Boletus regius* Krombh. *Bovista paludosa* Lév.

*Buglossoporus quercinus* (Schrad.) Kotl. & Pouzar *Caloscypha fulgens* (Pers.: Fr.) Boud.  
*Cantharellus friesii* Welw. & Curr.

*Cantharellus melanoxeros* Desm. *Clavaria argillacea* Fr.

*Coprinus martinii* J. Favre *Cortinarius orellanus* Fr.

*Cortinarius praestans* (Cordier) Gillet.

*Craterellus ianthinoxanthus* (Maire) Perez-De-Greg. *Crinipellis sardoa* Candusso *Entoloma bloxamii* (Berk.) Sacc.

*Floccularia luteovirens* (Alb. & Schwein: Fr.) Pouzar *Fomitopsis rosea* (Alb. & Schwein: Fr.) P. Karst. *Galerina paludosa* (Fr.) Kühner.

*Ganoderma pfeifferi* Bres. *Geastrum fornicatum* (Huds.) Hook.

*Geoglossum atropurpureum* Batsch: Fr. *Gomphidius glutinosus* (Schaeff.) Fr. *Gomphidius roseus* (Fr.) Fr.

*Gomphus clavatus* (Pers.: Fr.) Gray *Gyrodon lividus* (Bull.) Fr.

*Gyroporus cyanescens* (Bull.: Fr.) Quél. *Hericium erinaceum* (Bull.: Fr.) Pers.

*Hydnellum peckii* Banker.

*Hygrocybe calyptraeformis* (Berk. & Broome) Fayod *Hygrocybe conicoidea* (P. O. Orton).

P. O. Orton & Watling *Hygrocybe spadicea* (Scop.) P. Karst. *Hygrophorus carneogriseus* Malençon.

*Lactarius luteolus* Peck.

*Laricifomes officinalis* (Vill.: Fr.) Kotl. & Pouzar *Laurobasidium lauri* (Geyl.) Jülich. *Leucopaxillus rhodoleucus* (Romell) Kühner.

*Melanophyllum haematospermum* (Bull.: Fr.) Kreisel *Myriostoma coliforme* (Dicks.) Corda *Omphalina ericetorum* (Bull.) M. Lange.

*Peziza ammophila* Dur. & Mont. *Phaeolepiota aurea* (Matt.) Maire.

*Phylloporus pelletieri* (Lév.) Quél.

*Pluteus aurantiorugosus* (Trog.) Sacc.

*Podoscypha multizonata* (Berk. & Broome) Pat.

*Porphyrellus porphyrosporus* (Fr. & Hök) E. J. Gilbert *Ptychoverpa bohémica* (Krombh.) Boud.

*Pulveroboletus lignicola* (Kallenb.) E. A. Dick & Snell. *Ramaria botrytis* (Pers.: Fr.) Bourdot.

*Ramaria cedretorum* (Maire) Malençon. *Ramariopsis crocea* (Pers.: Fr.) Corner. *Rozites caperatus* (Pers.: Fr.) P. Karst. *Sarcodon cyrneus* Maas Geest.

*Sarcodon fuligineoviolaceus* (Kalchbr) Pat.

*Sericeomyces subvolvatus* (Malençon & Bertault) Bon *Squamanita cettoiana* Moser. *Strobilomyces strobilaceus* (Scop.: Fr.) Berk.

*Suillus flavidus* (Fr.: Fr.) Singer. *Tricholoma colossus* (Fr.) Quél. *Tricholoma columbeta* (Fr.) P. Kumm. *Tricholoma roseoacervum* A. Riva.